



AGINDUA, 2015eko uztailaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzetarako deia egiten duena. EHAA 138 zk (2015/07/23).

2015eko bigarren seihileko jarduerak

Eskabideetan egin diren hutsak zuzentzea

Deialdiaren 7. artikuluari jarraiki, baldin eta agindu honen 5. artikuluan eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak **10 eguneko epea** emango die sinatzaileei **hutsak zuzen ditzaten** edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die, agindutakoa bete ezean, eskaera bertan behera utzi dutela esan nahiko duela. Hala agintzen da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).

Horrenbestez, akatsak zuzendu behar dituztenen zerrenda eransten da.